

Nazionalismo erradikal berria (1959-1974): Galizia, Katalunia eta Euskadiko kasuen ikerketa konparatzailea

Fermí Rubiralta Casas
Zientzia Politikoan doktorea

1960ko hamarkadan Mendebaldeko Europako nazio minorizatuen susperraldiaren barnean, ikuspegi konparatu batetik, artikulu honek garai berean Espainiako Estatuaren hiru lurralde historikoetan izandako nazionalismoaren garapena ikertzen du eta prozesu horren bereizgarri nagusiak, hau da, berritasuna eta erradikalizazioa, azpimarratu. Honen bidez, Galizia, Katalunia eta Euskadiko nazionalismo erradikalaren agerpenaren kausak, diskurtso ideologiko berriaren ezaugarriak, bereizgarri garrantzitsuenak eta igarotako faseak aztertzen ditu, Espainiako mailako prozesua Mendebaldeko Europako nazionalismo azpiestatalen bilakaerarekin harremanetan jartzen bukatzeko.

In the sixties, within the strengthening of West European minority nations, the article analyses, from a comparative view, the developing of nationalism in the three historical territories in Spain, development that took place in the same time, emphasising the main characteristics of the process: newness and radicalisation. In this sense, the article deepens in the causes of radical nationalisms in Galicia, Catalonia and in the Basque Country, characteristics of the new ideological philosophy and steps these processes have given. The article ends relating the process developed in Spain to the evolution West European substates nationalisms have had.

Sarrera

Duela urte batzuk, 1940ko hamarkadan hain zuzen, «quan encara la bibliografía anglosaxoia», Daniele Conversiren hitzetan, «reservava aquesta temàtica a l'exclusiva competència dels antropòlegs» (Conversi, 1988: 23), Hans Kohn estatubatuarra, nazionalismoaren ikerketen aitzindariak, ikuspuntu konparatzaileari ekiteko beharra defendatzen zuen jadanik: «sólo la comparación de los diferentes nacionalismos de todo el mundo logrará que el estudiante sea capaz de ver lo que es común y peculiar a cada uno de ellos, permitiéndole así estimarlos con justeza» (Kohn, 1944: 23-24).

Hurrengo hogeitau urteetan, egoera urria ez zen apenas aldatu. Alde batetik, Henri Giordaneke azpimarratu duenez, «después de la 2ª Guerra Mundial, los valores nacionales están tocados de infamia o por lo menos han perdido mucho de su carácter legítimo» (Giordan, 1990: 162) eta, bestetik, John Breullyk azaldu duen moduan: «diversas teorías sobre integración política sugieren que los derechos democráticos, el desarrollo económico, la creación de una pauta nacional de política basada en un principio de clase (...) deberían cortar la hierba bajo los pies del nacionalismo separatista» (Breully, 1990: 294).

Esanak esan, Mendebaldeko Europako nazio minorizatuen hileta-elizkizunak ospatzeko garaia ez zen oraindik heldua eta hirurogeigarreneko urteetan bizi izandako nazionalismoaren berriragiketak joko zuten kanpo hartu zituen aditu gehienak. Ez da harrizkoa, beraz, garai horretan jaiotako zein berpiztutako mugimenduei eman zitzaizen izena, “nazionalismo berria”¹ alegia.

Susperraldiaren aurreko harridura-erreakzioaren ondorioz, aldiz, egile anglosaxoiek beraiek zabaldua, izugarriko inflazio bibliografikoa ikusteko aukera izan dugu ondorengo urteetatik aurrera². Dena dela, orain arte izandako ikerketa gehienetan, Hans Kohnek beharrezkoa zuen ikuspegi konparatzailea hartu dutenak ez dira, tamalez, askorik izan.

Hala ere, mota horretako hutsunea Iberiar Penintsulako nazionalismo azpies-tatalaren kasuan agian askoz nabariagoa izan da. Historian zehar, “Trinacional” edota “Galeuzka”-ren saiaketak salbu, Estatu Espainiarreko “nacionalidades históricas” deritzatenak, hau da, Galizia, Katalunia eta Euskadiren arteko harreman organiko eta politikoak eskasak izanik, ildo beretik, haien gaineko azterketa konparatzaileen falta agerian da³.

Hans Kohnek proposatzen zuen esparrua bezain zabala hartu gabe, ikuspegi konparatzailearen ardatza abiapuntutzat hartuta, lan honen helburu nagusia da,

1. Hain zuzen, bibliografía anglosaxoia izan da “nazionalismo berria”-ren izena gehien erabili duena, (Tiryakian, 1985; Nairn, 1979; Smith, 1997).

2. Hainbat egilek inflazio bibliografiko hori baieztatu dute, besteak beste, Eric. J. Hobsbawmek, esanez: «la literatura referente a las naciones y el nacionalismo inició una fase tan fructífera hace ahora unos veinte años» (Hobsbawm, 1991: 11-12).

3. Dena den, berrikitan, badirudi hutsune hau betetzen hasi dela eta, zentzu horretan, aipa daitezke Penintsulatik kanpoko bi egileren liburuak (Keating, 1996; Waldmann, 1997). Era berean, azpimarra ditzakegu J. Diez Medranoren lanak, Euskadi eta Kataluniari buruzkoak, eta Araceli Serranoren tesi doktora (Serrano, 1995).

bai Galizian, bai Katalunian eta baita Euskadin ere, Mendebaldeko Europan bezala, hirurogeiko urteetatik aurrera zabaldu zen nazionalismoaren etapa berriaren aztertzea eta fase horren ezaugarri garrantzitsuenak azpimarratzea⁴.

Berria izateaz gain, era berean, bereizgarri nagusia zein den kontuan harturik, frankismoaren azken garaian hiru herrialde historikoetan sortutako mugimendu nazionalista azpiestatuta definitzeko erradikal hitza ere erabili dugu.

Holako helburuak gauzatu ahal izateko, nazionalismo berriaren eraikitze ideologikoaren prozesua ikertu dugu, berritasunaren eta erradikalismoaren berezitasun horiek, aldez aurretik, hobeto zetozkien erakunde politikoen bidez; hau da, subjektu gisa hartuta, “Union do Pobo Galego” (UPG) Galizian, “Partit Socialista d’Alliberament Nacional dels Països Catalans” (PSAN) Katalunian, eta “Euskadi ta Askatasuna” (ETA) Euskadiko kasuan.

Ondorioz, baieztatzeko aukera izango dugunez, Estatuaren eragina ahaztu gabe, hots, espainiarrarena, nazionalismo berri eta erradikal honek, aztertutako tartean gutxienez (hots, hirurogeigarreneko hamarraldi osoan zehar eta hirurogeita hamarrekoen hasieran), elkarren arteko eraginik eza eta difusionismo eskasaren bitartez bilakatu arren, hiru esparruetan baditu kausa, ezaugarri eta etapa komunak, ondorengo orrialdeetan azalduko ditugunak.

Eta bukatzeko, Estatu mailako prozesu honen antzekotasunak eta ezberdintasunak argituko ditugu laburrean eta Mendebaldeko Europan aldi berean berpiztu ziren nazio minorizatuen garapena konparatuko.

1. Nazionalismo berri eta erradikalaren agerpenaren kausak

Ez da kasualitatea nazionalismo berriaren agerpena eta hirurogeigarreneko hamarkadan Espainia mailan izandako hazkunde ekonomikoa eta, ondorioz, aldaketa sozial eta kultural sakonak batera gertatzea.

Euskadin, Katalunian eta Galizian –azken kasu honetan, berezitasun batzuk izan arren– hazkunde ekonomiko arinaren eraginetan datza agerraldi horren funtsezko oinarria.

Hazkunde ekonomikoaren bitartez, oso denbora laburrean gertatu zen proletarizazio bizkorra, klase sozialen arteko aldaketak, nekazarien exodoa, hiritartze-tasaren igoera eta abar, hau da, kontsumo-gizartea definitzen duten ezaugarri garrantzitsuenak eta horri dagozkion ondorio kulturalak, besteak beste, sekularizazioa, lan merkatura emakumeen sarrera masiboa, zerbitzuen eskaeraren handitasuna eta, guztien gainetik, aurreko balioen galera eta ohituren, pentsamenduaren eta jokamoldeen erabateko aldaketa.

Hainbat egilek esan dutenez (Geertz, 1964: 64; Oliet, 1993: 49), gizarte batean, hirurogeiko urteetatik aurrera Estatu Espainiarrean jasan izan zen bezalako

4. Hemen jasotzen ditugun datuak gure tesi doktoralaren ondorioak dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientzietako Departamentuan 1995. urtean aurkeztua eta, laburbilduta, bi urte beranduago argitaratua (RUBIRALTA, 1997).

eraldaketa sakona gertatzen denean, egoera egokiena da ideologia berriak sor eta identitate-ereduak alda daitezen.

Maila horretako eraldakuntzaren barneratze eta aldaketa sakonen aurreko beldurrak eta ziurtasun falta, ikertu ditugun hiru kasuetan, iraupen nazionalaren kontrako erasotzat hartu ziren eta, horren bitartez, estimulu-erantzun erreakzio bat piztuz, identitatearen defentsarako prozesu bat zabaldu zen.

Prozesu pizgarri hau, bestetik, nazionalismoaren historian zehar, ez litzateke batere originala. Aitzitik, aurreko faseetan ere, eragin handia izan bide zuen nazionalismoaren bilakaeran: hala nola, gerra aurreko garaian horrelako azalpena erabili zuen Vicente Riscok galegismoaren susperraldia azaltzeko (Risco, 1931: 235); Jaume Colomerrek Kataluniako nazionalismo erradikalaren sorreran, mende-hasieran (Colomer, 1995), eta Euskadin Javier Corcuera beste horrenbeste jorratu du aranismoaren jaiotza interpretatzean (Corcuera, 1979).

Are gehiago, planteamendu honek zerikusi handia du Ernest Gellnerrek defendatzen duen “modernazio-ikuspuntua” delakoarekin (Gellner, 1964) eta “Nation-building” deitutako eskolaren barnean, K. Deutschek eta Walker Connor-ek aztertutakoarekin (Deutsch, 1971; Connor, 1998)⁵.

Ildo beretik, Daniel-Louis Seiler-ek, Waloniako politologo eta egun Bordeleko Unibertsitateko katedradunak, Stein Rokkan norvegiarraren ikerketen abiapuntutik hasita (Rokkan, 1983), antzeko tesiari eusten dio, baina, era interesgarriagoan, nazionalismoaren garapenaren azkenengo faserako (Seiler, 1990: 19).

Eta, hirugarrenik, gauza bera azpimarratu du Gurutz Jauregui, Habermas, Etzioni edota Marcus-en haritik esanez: «la recuperación del individuo en la actual sociedad tecnológica deviene fundamentalmente en la necesidad de un llamamiento a su identidad tanto individual como de grupo» (Jauregui, 1986: 155; Habermas, 1975; Etzioni, 1971; Marcuse, 1987).

Estimulu-erantzun erreakzioa prozesu honen sorburua izan arren, ezin da ahaztu, hiru kasuetan, nazionalismoa ez zela bat-bateko fenomeno. Nolanahi ere, alde aurretik, korpus identitario propioa eta berezia garatu zuten hiru kasuek. Eta aztertzen ari garen fasearen atarian, ikusteko aukera izango dugunez, nazionalista erradikalek aurreko garaian buruzko berrirakurketa egin zuten, baina, gaurkotze prozesu berean, koiuntura horretan ospe handiena zuten ideiak bereganatu eta egokitu zituzten pentsamolde nazionalista berrian.

2. Diskurtso nazionalista berriaren ezaugarri nagusiak

Nazionalismo berriaren diskurtsoari dagokionez, hiru kasuetan, ezaugarri komunak bereiz ditzakegu.

Lehenik, goraiпатzekoa da nola, urte eskas batzuetan, nazionalismo erradikala diskurtso ideologiko berria eraikitzeke gai izan zen.

5. Eskola horiei eta horien sailkapenari buruz, ikus daiteke Jaffrelot-ek eskaintzen duen lan interesgarria (Jaffrelot, 1993: 204-254).

Azkartasunaren eta nolabaiteko erraztasunaren arrazoiak honako hauek izan ziren. Batetik, Daniel-Louis Seiler-ek begibistan utzi duenez (Seiler, 1990: 8), erakunde nazionalistetan oso garrantzia handia du diskurtso ideologikoaren eremuak berak, dudarik gabe, egitura organikoaren edota mobilizaziorako ahalmenarenak baino handiagoa.

Bestetik, kontuan hartzekoa da erakunde hauen hiperideologismorantz abiatzeko ohiko joera ere.

Azkenik, lehenengo ezaugarria ulertzeko, ezin da ahaztu frankismoa bezalako erregimen autoritarioaren menpean, erakunde antifrankista guztiek, nazionalistek barne, erakutsi zuten ideologismo izugarria, sistema politikoaren jarrera itxiaren aurka batik bat.

Diskurtso berria gauzatzeko unean, bigarren ezaugarria izan da, nazionalismoaren historian zehar sarritan gertatu denez⁶, intelektualek izan duten protagonismoa.

Hiru herrialdeetan, Galizian, Katalunian zein Euskadin, intelektualak bereziki, lehenengoak izan ziren iraupen nazionalerako (benetakoa ala itxurazkoa, berdindio) arriskuen berri emateko eta, egoera beltzaren interpretatzaile gisa, beraiek bihurtu ziren diskurtso berriaren eraikitzearen arduradun nagusiak.

Are zehatzago, Peter Waldmannek klase ertainetan kokatzen du intelektual edota «grupos portadores de la resistencia» horien jatorria eta, bere ustez, «el punto de partida del movimiento contestatario había sido en el caso español también la rebelión de partes de la clase media contra la opresión de la etnia»(Waldmann, 1997: 64).

Edozelan ere, aurreko sasoiaren ez bezalaxe, garai horretako intelektualek zenbait ezberdintasun azaldu dituzte: besteak beste, euren gaztetasuna; honi lotuta, politikari ekiteko gogo bizia, nazionalista zaharren kulturalismoaren eta bide politikoaren ezetzaren aurka; baita ere, II. Errepublika eta Gerra Zibilaren giroa gainditzeko nahia eta, aldi berean, Mendebaldeko Europaren antzera, jasan duten pauperizazio-prozesuaren bitartez, sektore sozialen herritarrekiko hurbiltasun handia.

Hain zuzen ere, azkenengo hamarkadetan jasandako pauperizazio sozial horretaz hainbat egile baliatu da intelektualen protagonismoa nazionalismoaren diskurtsoaren sorreran azaltzeko.

Horrela, nazionalismoaren bidez, intelektualek berreskuratuko zuten gizartean galdutako ospe soziala. Hala nola, Andrés de Blas Guerrerok, Milton Esmanen lanak abiapuntutzat hartuta (Esman, 1977), intelektualei buruz ondokoa azpimarratu du: «generalmente provienen de grupos que se han beneficiado de la expansión de la educación superior pero que han tenido pocas oportunidades de

6. Nazionalismoaren aurreko faseetan intelektualek izan duten garrantziari buruz egile ugariak hitz egin du, baina, agian, hiru etapetan banaturiko sailkapen zehatza dela eta, azpimarratzekoak dira Miroslav Hroch-en lanak, 1968z geroztik Pragako Unibertsitatean eginikoak eta ingelesez 1985ean argitaratuak.

éxito social» (Blas, 1984: 125-126); W. Beerrek, Frantziako militante nazionalistei buruzko ikerketa batean irakasleen partaidetza batezbestekoa baino handiagoa argitzeko nazionalismoak dakarren ohorea begibistan utzi du (Beer, 1980); R. Clarkek mota horretako adierazpena erabili du apaizek euskal nazionalismoan duten protagonismo garrantzitsua azaltzeko (Clark, 1984) eta José Fornek errenta ekonomikoa eta ohore sozialaren arteko ekuazioaren desoreka biguntzeko nazionalismoak eskaintzen duen aukera defendatu du (Forné, 1995)⁷.

Hala ere, ildo horretako adierazpenak, A. D. Smithek laburtzen duen azalpen multzoa, hau da, «el nacionalismo como movimiento de intelectuales en pos-del-poder», nazionalismoaren aurreko faseetarako ere aplikatu izan da, baina beronek zehaztu duenez, «no hay datos suficientes para formular una proposición general sobre los motivos de los intelectuales nacionalistas» (Smith, 1997: 86-87).

Hirugarrenik, era berean, azpimarratzekoa da diskurtso nazionalista berria eraikitzean gune unibertsitarioak izan duen eragina. Unibertsitatea ikertutako erakunde politikoaren sorgune nagusia bilakatu zen eta unibertsitarioak izan ziren erakunde erradikalen aurreko taldeak: “Brais Pinto” izeneko antolamendu berezia Galizian, “Front Nacional de Catalunya”-ren sekzio unibertsitarioa Katalunian⁸ eta “Ekin”, ETAre kasuan.

Unibertsitatea, korrante nazionalista berriarentzat, mugimendu antifrankistarekiko topagune bikaina bihurtu zen. Hor, bereziki, garatu ziren orduko ideiarik progresistenak, eta, horien artean, marxismoa, ezagutu eta eskuratzeko toki ezin aproposagoa izan zuten erakunde erradikalek.

Diskurtso berriaren azken ezaugarri nagusi moduan, aurreko faseetan gertatu zen bezala⁹, XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera, nazionalismo erradikalaren edukia guztiz hiritarra izan da eta horrelakoak dira bere erdigunea, kultura eta ideologia, José Fornek, besteak beste, adostu duenez (Forné, 1995: 119).

Intelligentsia berriak garatzen duen pentsamolde kaletarraren ezaugarri hau ezinbestekoa da, beste ondorio batzuetaz gain, ulertu ahal izateko nola, Galiziako kasuan, beste kasuen aldean egiturazko ezberdintasunak erakutsi arren (adibidez, azpi-garapen nabariagoa, menpekotasun ekonomiko handiagoa eta lehen sektorean oinarrituagoa), Katalunian edota Euskadin sortu zen gisako eraikitze nazionalista berria eta erradikala bilakatzeko kapaz izan zen.

Hala eta guztiz ere, hiru kasuetan, eraikitze ideologiko berriaren prozesua benetan baldintzatzen duen faktorea frankismoaren sistema larderiatsuaren eragina dugu.

7. “Països Catalans” izeneko kontzeptuaren hedapen berria ere, intelektualen pauperizazioaren bidez azaldu dute egile katalan batzuek (Carreras, Giral, LLuch, Roca, 1977: 90).

8. Sorgune unibertsitarioaren garrantzia begibistan geratu zen, gure ustez, Galiziako eta Kataluniako erakunde erradikalei buruzko aurreko lanetan (Rubiralta, 1988 eta 1998).

9. Beste askoren artean, aipamen hau baieztatzeko, Joan-Lluís Marfanyek, adibidez, Katalunian eztabaida bizia sortutako liburu batean argitzen duenez, pasa den mendearen katalanismo politikoa jaiotzearen, mugimendu hiritarra izan zela aitortu du (Marfany, 1995: 36).

Alde batetik, frankismoak, dudarik gabe, berrindartu zuen subjektu nazionalisten gaineko erasotze-irudia (erreala edo irrealia) eta, horri esker, goian aipatutako estimulu-erantzun erreazioa.

Frankoren diktadurak, baita ere, espainiarra ez zen edozein adierazpen nazionalista ukatuz, nazionalista azpiestatalen izaera erradikala eta erregimenaren kontrako jarrerak areagotu zituen.

Eta, langilearekiko mesfidantza historikoa gainditurik, ustekabean, frankismoaren eraginak sektore borrokarienganantzko hurbilketa erraztu zion garai horretan nazionalismo berriari.

3. Diskurtso nazionalista berriaren bereizgarri garrantzitsuenak

3.1. Bereizgarri erradikala

Dena dela, frankismoa bera ez zen, inolaz ere, diskurtsoaren erradikalizazioaren errudun bakarra. Horrela izango balitz, ez litzaioke logikarik faltako pentsatzeari mota horretako nazionalismoa sortzeko garai egokiena berrogeigarreneko hamarraldian izango litzatekeela, hau da, frankismoaren eragina era ahalik eta zorrotzenez azaltzen eta garatzen zenean.

Hori dela eta, aipatutako arrazoiez gain, nazionalismo berriaren sorrera zergatik hirurogeigarreneko hamarkadan gertatu zen argitzeko bestelako kausak ere erabili behar izan ditugu.

Egia esan, gure ustez, Ted Robert Gurr soziologo estabatuarraren “frustrazio erlatiboa” izeneko teoria aplikatuz¹⁰ (Gurr, 1970), 1960az geroztik hazkunde ekonomikoak zabalduak garapen eta irekieraren espektatibek ez zuten inolako parekotasunik izan beste alor batzuetan. Honen bitartez, sortutako “frustrazio erlatiboa”-k diskurtsoen erradikalizazioa bilakatu zuen hamarkada horretan, bai nazionalismoan, baina, baita ere, egiazta dezakegunez, ideologia antifrankista politiko guztietan.

Eta, zentzu berean, Estatu Espainiarrean inon baino sendoago gertatu arren, Peter Waldmannek antzeko erreazioa baieztatu du Quebec eta Ipar Irlandako kasuetan ere (Waldmann, 1997: 66-67).

Gauzak horrela, erradikalismoa nazionalismo berriaren bereizgarrietako bat bihurtu zen, agian garrantzitsuena, ikertutako hiru herrialdeetan.

Horren bitartez, Eric Erikson-ek defendatu duen moduan (Erikson, 1972), existentziaren kontrako eraso uneetan, aldi honetako intelligentsia gazteak uste zuen bezala, talde sozialek egiten duten “natiismo” ala “utopia”-ren arteko aukeraren aurrean, koiuntura horretan, aurrekoetan ez bezala, nazionalismo berriak bigarren bidea jorratu zuen, eduki erradikalak areagotuz.

Horregatik, diskurtso ideologiko berria eraikitzeko unean, osagai erradikalekin bilatuz, nazionalista berriek iturri progresistenak erabili zituzten, marxismoa

10. Borroka armatuaren sorrera azaltzeko M. Wiewiorka eta F. Letamendiak Gurren tesia ere erabili izan dute (Wiewiorka, 1991; Letamendia, 1994).

bera lehendabizi. Beraz, Galizian, zein Katalunian, zein Euskadin, UPG, PSAN eta ETA-k sozialismoaren ikuspuntuak barneratu zituzten eta klase herritarrerantz bideratu zuten ekimen politikoa.

Era berean, eraikitze berriaren aldarrikapen nazionalistaren arloa osatzean, beren nazionalismoaren historiatik tradizio erradikalena berreskuratuz, jarrera independentista sutsuena aukeratu zuten.

3.2. Bereizgarri etnista

Erradikalismoaz gain, nazionalismo berriaren bigarren osagarri nagusia etnismoa izaten da.

F. Barth-ek interpretatu duenez (Barth, 1976), etnismoa erabili ohi da, kanpoko erasoaren aurrean, talde etnikoa bereizten omen duten sinboloak, objektiboak zein subjektiboak, berrindartzeko.

Arraza baztertuta Bigarren Mundu Gerra izan ondoren, faxismoen porrota dela eta, Mendebaldeko Europako nazionalismo azpiestataletan gertatu zen moduan, sinbolo bereizgarri horien artean, hizkuntzak nagusitasuna lortu zuen. Eta, zentzu honetan, ia alferrik izaten da gogoraraztea aztertutako hiru kasuek badutela ofiziala ez zen, eta, are gehiago, frankismoak debekatzen zuen hizkuntza propioa.

Hain handia da hizkuntzaren lehentasuna diskurtso berrian ezen hiru herrialde historikoetan agertu ziren muga nazionalak faktore honen arabera birplanetatzeko ahaleginak: Galiziako nazionalismoan, adibidez, hirurogei urteko hamarkadan "lusismo"-a (hau da, Portugal eta Galizia arteko kultur eta hizkuntz harremanak estuki lotzearen aldeko jarrera) hedatzeko arrazoia; Katalunian, Joan Fuster¹¹, idazle valentziarraren eskutik batez ere, hori da "Països Catalans" deituriko proiektuaren kausa; eta, era berean, hizkuntzaren nagusitasunean datza F. Krutwig-ek egindako proposamena, euskal esparru nazionala Biarno, Errioxa edota Ebro ibairaino zabaldu zuenean (Krutwig, 1963).

Bereizgarri etnista eta, bere barnean, hizkuntzaren lehentasunaren ondorioz, urte horietan zehar hiru hizkuntza minorizatuena susperraldia ikusteko aukera izan dugu eta, aldi berean, kulturalismoa zein aurreko elitismoa gainditzeko saioak.

4. Nazionalismo erradikal berriaren garapenaren faseak

Hiru herrialdeetan, kausak, ezaugarri eta bereizgarri komunak azaldu ondoren, diskurtso nazionalista berriaren garapenean, hiru fase seinala ditzakegu ikertutako urteetan.

1. Fasea: Sorrera (1959-1962)

Lehenengo fase honetan, nazionalismo zahar eta berriaren arteko desberdintasunak gero eta handiagoak egin ziren, bigarren honek nolabaiteko independentzia lortu arte.

11. Hainbat idazkitan azaldu zituen Joan Fusterrek "Països Catalans" izeneko proiektua eta honi buruzko zehaztapenak, baina, dudarik gabe, *Nosaltres els valencians* (1962) da garrantzitsuenak.

Berrogeita hamar urteetako erdialdetik aurrera, nazionalismo berriaren sorrera azaltzen zuten kausak martxan jartzen hasi ziren.

Arrazoi horiei esker, estimulu-erantzun erreakzioa piztu zen garaia da eta, intelektualek iraupen nazionala arrisku bizioan ikusirik, nazio-identitatearen defentsarako prozesua zabaldu zen.

Belaunaldi-txandaketaren barnean eta gerra garaiko erakunde nazionalisten porrotaren agerian, nazionalismo berriaren lehendabiziko taldeak eratu ziren, unibertsitatean batez ere, lehenago aipatu dugun legez. Hau, besterik ez, izan da nazionalismo zaharra eraldatu zuten ideien hausnarketarako eta ikerketarako jokalekua eta diskurtso berriaren lehenengo zutabe ideologikoak irteteko sasoa.

Hasierako faseko hausnarketa horretan, nazionalista gazteek Bigarren Errepublikari eta Gerra Zibilaren ondorioak aztertu zituzten eta, oro har, nazionalismoaren historiaren berrirakurketa eginik, nazio mailan, ikuspuntu erradikalenak bere egin zituzten.

Gizarte mailan, berriz, gai honi buruz inoiz gertatu ez den bezalako kezka erakutsiz, koiuntura horretan modan zeuden korronte progresistenak miretsi zituzten, Hirugarren Munduko nazio-askapenerako mugimenduak bereziki, eta,aldi berean, ezin zuten ulertu mendebaldearen aldeko nazionalismo zaharraren apustua, ezta honek zekarren antikomunismoa ere.

Hala ere, ohiko nazionalismotik gero eta urrunago azaldu arren, orduko planteamendu ideologikoak progresistak ziren baina ez hain sakonak.

Baina, pixkanaka, korronte nazionalista berria sendotuz joan zen. Hirurogei urteetako hamarkadaren hasieran, nazionalismo zaharraren hainbat partaiderekin tirabira organiko zein ideologikoen bitartez, nazionalismo zaharraren gaurkotze eta aldaketarako ezintasunaz ohartu ziren eta, haien arteko loturak hautsi behar izan zituztenean, heldutasunaren garaiko ataria zeharkatu zuten¹².

2. Fasea: nazionalismo berriaren egituraketa (1963-1968).

Hirurogeigarreneko hamarkadan zehar, bereizgarri erradikala eta etnista erraz-ten zituzten kausak bete-betean garatzearekin batera, diskurtso nazionalista berriaren eraikitze-prozesua areagotu zen.

Goian aipatutako kausei eta baldintzei esker, ideologia berriaren garapen-prozesuan, nazionalista gazteek Hirugarren Munduko nazio-askapenerako mugimenduak eredutzat hartu zituzten eta, Estatu Espainiarreko garaiko gizartea herrialde horietako egoeratik oso urrun geratu eta zeharo ezberdina izan arren, "ispilu kolonialista" sortu zuten.

12. Nolabait lortutako heldutasuna baieztatuz, Galizian urte horietan "Brais Pinto" izeneko taldeak Ramón Piñeirik bideratzen zuen galegismo kulturalistarekiko loturak hautsi zituen; Katalunian, FNC alderdi independistaren barnean militantzia gaztea sekzio unibertsitario propioa sortzeko gai izan zen eta, Euskadiri dagokionez, ETArekin I. asanbladak islatzen duena da, G. Jáuregik ondo baino hobeto azaldu duenez, «el punto de inflexión entre el nacionalismo histórico y el nuevo nacionalismo que se va a derivar de la mano de la nueva organización» (Jáuregui, 1981: 147).

Horren bidez, urte horietan, ikertutako erakunde politikoetan askapen nazionalaren borrokari buruzko aipamenak, "nazionalismo iraultzaile"-aren estrategiaren bilakaera edota alienazioa, proletalgo nazionala zein herri langilearen kontzeptuen erabilera ugaritu zen, teoriaren muga inoiz gainditu ez zuen borroka armatuaren mirespena ahaztu gabe¹³.

Bigarren fasean ere, lehendabiziko erakunde erradikal politikoak eratzten ziren heinean, Galizian eta Euskadin, batik bat, nazionalismo zaharreko alderdiak krisialdi sakonean murgildu ziren eta egoera beltzetik ez ziren irtengo 1974. urtea arte gutxienez, hau da, frankismoaren aldaketa ezinbestekoa agertu zenean.

Beren aldetik, talde nazionalista gazteek eredu iraultzailea aintzakotzat hartu zuten eta, bigarren fasean ere, hiru kasuetan orain arte bateratu samarra izan den nazionalismo berriaren eraikitze-prozesuan hasi zen azaltzen haien arteko garapenaren zenbait ezberdintasun.

3. Fasea: nazionalismo berriaren hasierako garapena (1969-1973)

Bigarren fasean egituraketa-prozesuari hasiera eman ondoren, hurrengoan nazionalismo erradikal berriari planteatzen zitzaion erronka nagusia esparru politiko propioaren definizioa izaten zen.

Aurreko urteetan lortutako heldutasun-maila zein esparru politiko propioa bilatzeko beharraren eraginez, hemendik aurrera errealitatetik hurbilago ibiltzeko premia izan zuten erakunde nazionalista erradikalek, Hirugarren Munduko nazio askapenerako jarrera mimetikoegiak bazterturik.

Ispilu kolonialistaren eredia jorratu beharrean, UPG, PSAN zein ETA-n, 68ko Maiatzaz geroztik bilakatzen den "hiperleninismoa"-ren¹⁴ aldeko joera nabarmendu zen hirugarren fase honetan.

Besteak beste, hiperleninismoaren bidez, nolabaiteko bigarren aldiko maoismoa nagusitu zen eta, aurreko antiinperialismoa ahazturik, maila organikoaren lehentasun handiagoa, erakunde-egitura itxiagoa eta Zientzia Politikoak definitutako eredu hiperdemokratikoranzko hurbilketa ekarri zituen.

Edozelan ere, nazionalismo erradikal berrietarako maoismoaren protagonismoa erreferente europarragoa zen, dudarik gabe, eta, ondorioz, hiru herrialdeetako benetako errealitatetik planteamendu hurbilagoa.

13. Ildo horretatik, adibidez, garai hartan, UPGak Hirugarren Munduko mugimenduen eran alderdiaren izaera ukatu eta askapen nazionalerako fronte bat zela azpimarratzen zuen bitartean (Rubiralta, 1998: 114), denbora laburrean PSAN alderdia osatuko zutenen Josep Ferrer ideologo nagusiak, besteak beste, alienazio kontzeptua nazio mailan garatu zuen (Rubiralta, 1988: 88) eta, ETAk, bere aldetik, V. asanbladaren bigarren zatian nazionalismo iraultzailea lau haizetara aldarrikatzen zuen (Letamendia, 1994: 106).

14. 68ko Maiatzeko gertaeren ondorioz Mendebaldeko Europan zehar hedatzen den fenomeno dugu hiperleninismoa. Hain zuzen, ortodoxia leninistan oinarritzen da, batez ere proletalgoaren abangoardiako alderdi sendo eta zentralismo demokratikoan sustraiturik. Bitxia badirudi ere, hiperleninismoa III. Internazionalari egindako kritika antiautoritarioak eragindako hutsune organikoaren aurreko erantzuna izan zen.

Beste alde batetik, joera hau, 1972 urtean Ferrolen eta Vigon izandako langile-mobilizazioei esker, Galiziako kasuan, eta, Euskadin, 1970-eko urtearen amaieran Burgoseko Epaiketa ezagunean gertatutakoei esker areagotu egin zen, baina, baita ere, langileen borroka eta aldarrikapen nazionalak bat egin zuten eta hauen mirespena hedatu zen.

Dena dela, 1974 urtearen hasiera inguruan, hau da, ikerketa-lana bukatzeko aukeratu dugun datan¹⁵, frankismoaren desagerpenaren hurbiltasunak praxis-eremuari lehentasun handiagoa ekarri zion, diskurtso berrian hain funtzesko izan zen erradikalizazioa baretuz eta hirugarren fase hau bukaraziz.

Hori dela eta, koiuntura berrira moldatu beharrean, urte hartan nazionalismo berrian ikertutako erakundeak zatitu egin ziren: PSANa bitan banatu zen, irlandar erara, "ofizialak" eta "provisional"-en artean; ETAREN barnean, "mili"-ak eta "poli-mili"-ak sortu ziren eta iskanbilak eta militante-kanporaketak ere ez ziren falta UPGAREN barruan urte hartan.

Nolanahi ere, koiuntura berriari esker, garai horretako zatiketaren funtsezko kausa, aurrekoan ez bezalaxe, ez zen ideologikoa izan, baizik eta, batik bat, estrategikoa eta organikoa.

Era berean, azterketa honetatik kanpo kokatzen den fase berrian, orain arte izandako difusionismo ezari bukaera eman zitzaion eta nazionalismo berriaren hiru erakundeen artean harreman estuagoak sortu ziren. Horrela, "Carta de Brest" izeneko itunaren bitartez, Mendebaldeko Europako beste erakunde nazionalista erradikal batzuek gain, Galiziako UPG zein Kataluniako PSAN "provisional"-arekin harremanetan jarri, ETA-pm-ek Estatu Espainiarrean borroka armatuaren aldeko azpiegitura lortu zuen.

Azken finean, ezaugarri honek egiaztatzen duena da euskal nazionalismo erradikalaren lehentasuna, Katalunia zein Galiziako prozesuekiko. Egia esan, Estatu mailako nazionalismo azpiestatal berrian, soilik euskal mugimendua izan zen gai hirugarren fasearen helburua, hau da, esparru politiko propioa definitzeko. Eta holako helburua burutzeko, ezinbestekoa gertatu zen borroka armatuak eragiten zuen sinkretismoa eta honek sortutako errepresioaren aurkako eraketa itxia eta bateratua.

Aldiz, esparru politiko propioa sendotzeko ezintasunaren aurrean, Katalunia-ko erakunde nazionalista erradikala, ikusi dugunaren arabera, bitan zatitzen zen bitartean, UPGAN antzeko zerbait gertatu zen eta Galiziako alderdi komunista bihurtzeko prozesua areagotu behar izan zuen¹⁶.

15. Ikerketa-lana bukatzeko 1974 urteko data aukeratzeak hainbat arrazoi ditu. Lehenik, gure lanaren objektua, nazionalismo erradikal berria, urte horretarako, heldutasun minimo batera heldu dela ziurta daiteke, eta, horren bitartez, aztertutako prozesuaren ikuspegi orokorra emateko nahikoa dela uste dugu. Bestetik, egoera politiko berriak, "trantsizio demokratiko" delakoak, badu osotasuna ikerketa propio bat egiteko. Aldi berean, data horretan bukatuz, ekidin ahal izan ditugu bizirik dirauten erakundeek buruz irten zitezkeen subjektibitateak eta gaur egungo prozesuei buruzko inplikazioak.

16. Esparru propioa sendotzeko ezintasun horren ondorioz, UPG erakunde erradikalak, bi urte lehenago ikusten ez zuen alderdi komunista galiziarra bihurtzeko beharra, 1974az geroztik gauzatu zuen, maoismoarekiko mimesi-prozesu baten barruan, espreski azalduz, «alderdia bideratzen duen estrategia marxismo-leninismoa da, Mao-Tse-tung-en pentsamendua, alegia». *Estatutos provisionales da Union do Pobo Galego, 1974-ko maiatza, 1. or.* (Rubiralta, 1998: 185-186).

5. Estatu Espainiarreko eta Mendebaldeko Europako nazionalismo berriaren ezberdintasun nagusiak

Iberiar Penintsulako hiru lurralde historikoetako nazionalismo berriaren eta erradikalaren eraikitze-prozesua ikertu eta eraikitze-prozesuaren ezaugarri eta bereizgarri nagusiak azpimarratu ondoren, bukatu baino lehenago, era laburrean, Espainiako Estatuan izandako fenomeno hau aldi berean Mendebaldeko Europako nazio minorizatuaren susperraldiarekin harremanetan kokatu nahi genuke eta haien arteko antzekotasun garrantzitsuenak eta desberdintasun nagusiak konparatu.

Lehenengo eta behin, esan beharra dago ez dela kasualitatearen ondorioa Mendebaldeko Europako nazionalismo azpiestatalaren susperraldia eta Penintsulako nazionalismo berriaren eraikitzea aldi berean gertatzea.

Eremu bietan, nazionalismo azpiestatalaren berpizkundea azaltzen duten arrazoiak antzekoak izateaz gain, garai horretan garatu zituzten bereizgarriak, hau da, progresismoaren aldeko joera, etnismoa eta horren barnean hizkuntzaren nagusitasuna komunak izan zirela ziurta daiteke.

Izan ere, era laburbilduaz, bi prozesuen arteko parekotasuna azpimarratzea baino interesgarriagoa izaten da, egingo dugun antzera, agerian uztea ezberdintasunik nabarietak.

Ildo horretatik, dudarik gabe, ikertutako garaian behintzat, Espainiako Estatuan frankismoaren erregimen larderiatsuaren eraginari dagozkio bi eremuen arteko ezberdintasunaren arrazoi garrantzitsuenak.

Horrela, Estatu Espainiarreko hiru nazionalismo azpiestatalek erradikalizazio handiagoa garatzeko aukera izan zuten bitartean, Mendebaldeko Europako bestelako herri minorizatueta arrakasta handiz Guy Heraudek bideratu zuen mugimendu federalista europarrak (Heraud, 1963), berriz, eragin eskasa izan zuen Galizia, Katalunia edota Euskadiko nazionalismo berrian.

Dena dela, bien arteko ezberdintasun handien moduan, batez ere 68ko Maiatzaz geroztik, Iberiar Penintsulako hiru nazionalismo erradikal horiek, Mendebaldeko Europan ez bezala, ez ziren garatu “mugimendu sozial berrien erara” eta, eremu horretan, aldarrikapen nazionalak, beste aldarrikapen sozialekin batera, ez zuen parte hartu “ukapen-fronte” delakoan, hau da, gizarte industrialaren ondoko gizarteetarako Alain Tourainek defendatzen duen eskema ezagunaren arabera (Touraine, 1978: 15-31)¹⁷.

Asimetria honen arrazoiak ez dago, inolaz ere, harremanik ezaren kontuan edota Espainiako Estatuak Mendebaldeko Europarekiko zuen urruntasunean, hiperleninismoaren ezaguerak berak baieztatzen duenez.

Aitzitik, frankismoaren eraginez, gizarte industrialaren ondokoari dagozkion ezaugarri batzuk 70eko hamarkadan garatzen hasi arren, Espainia mailan ez zen gertatu oraindik, ikertutako garaian behintzat, Tourainen eskemari jarraituz, ga-

17. Berrikitan, Francisco Letamendiak harremanetan jarri ditu mugimendu sozial berriak nazionalismo azpiestatalaren bilakaerarekin (Letamendia, 1997: 104-110).

tazken instituzionalizaioa, are gutxiago ere, mugimendu sozial zaharren krisialdia. Horregatik, eremu horretan, trantsizio politikoa delakoa arte, mugimendu alternatiboek ez zuten agertzeko aukerarik izan.

Leku ezagatik, korapilatsua bezain interesgarria den prozesu ideologikoaren hiru kasuen arteko desberdintasunak aztertu ezinik, hemen bukatutzat emango dugu nazionalismo berriari buruzko ikerketaren laburpen hau. Azpimarra ditzagun, beraz, konklusio gisa, garai horretako nazionalismo azpiestatalaren ezaugarri nagusiak, hau da, erradikalizazioa eta berritasuna.

Bibliografia

- Barth, F., (1976): *Los grupos étnicos y sus fronteras*, Fondo de Cultura Económico, Mexiko D.F.
- Beer, W., (1980): *The Unexpected Rebellion: Ethnic Activism in Contemporary France*, University Press, New York.
- Blas, A., (1984): *Nacionalismo e Ideologías Políticas contemporáneas*, Espasa Calpe, Madril.
- Breully, J., (1990): *Nacionalismo y estado*, Pomares-Corredor, Bartzelona.
- Carreras, J.M.; Giral, E.; Lluch, E; Roca, F., (1977): "Nació i regió als Països Catalans: economia política, estructures territorials i ideologies", *Debat sobre els Països Catalans*, Curial eta beste batzuek, Bartzelona.
- Clark, R., (1984): *The basque insurgents: E.T.A. 1952-1980*, University of Wisconsin.
- Colomer; J., (1995): *La temptació separatista a Catalunya. Els orígens (1895-1917)*, Columna, Bartzelona.
- Connor, W., (1998): *Etnonacionalismo*, Trama, Madril.
- Conversi, D., (1988): "La sociologia anglosaxona davant el fet nacionalitari", *Europa de les nacions*, 3 zbk., Bartzelona.
- Corcuera, J., (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Siglo XXI, Madril.
- Deutsch, K., (1971): *El nacionalismo y sus alternativas*, Paidós, Buenos Aires.
- Erikson, E., (1972): *Adolescence et crise: la quête de l'identité*, Flammarion, Paris.
- Esman, M., (1977): *Ethnic Conflict in the Western World*. Cornell University Press, Ithaca.
- Etzioni, A., (1971): *The active society. A theory of societal and political processes*, The Free Press, New York.
- Forné, J., (1995): *Las dos caras del nacionalismo. Los nacionalismos étnicos*, Haranburu, Donostia.
- Fuster, J., (1962): *Nosaltres els valencians*, Ed. 62, Bartzelona.
- Geertz, C., (1964): "Ideology as a cultur system" in Apter, D. (arg.), *Ideology and discontent*, Free Press, New York.
- Gellner, E., (1964): *Thought and Change*, Weindenfield and Nicolson, Londres.
- Giordan, H., (1990): "Miseria en la investigación sobre las minorías étnico-nacionales en Europa Occidental", in Herria 2000 Eliza, *Derechos humanos individuales, derechos de los Estados, derechos de los Pueblos*, Bilbo.
- Gurr, T., (1970): *Why Men Rebel?*, Princeton University.
- Hroch, M., (1985): *Social preconditions of Nationalism Revival in Europa. A comparative Analysis of the Social Composition of Patriotic Groups among the Smaller European Nations*. University Press, Cambridge.
- Habermas, J., (1975): *Problemas de legitimación en el capitalismo tardío*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Heraud, G., (1963): *L'Europe des ethnies*. Presses d'Europe, Paris.

- Hobsbawm, E.J., (1991): *Naciones y nacionalismo desde 1780*, Crítica, Barcelona.
- Jaffrelot, C. (1993): *Los modelos explicativos del origen de las naciones y del nacionalismo. Revisión crítica*, in Delannoi, G.; Taguieff (arg.), *Teorías del nacionalismo*, Paidós, Barcelona-Buenos Aires.
- Jáuregui, G., (1981): *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*, Siglo XXI, Madrid.
- , (1986): *Contra el Estado-nación. En torno al hecho y la cuestión nacional*, Siglo XXI, Madrid.
- Keating, M., (1996): *Naciones contra el Estado. El nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*, Ariel, Barcelona.
- Kohn, H., (1944): *Historia del nacionalismo*, Fondo de Cultura Económica, México.
- Krutwig, F., (1963): *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad*, Norbait, Buenos Aires.
- Letamendia, F., (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A.*, R & B, Donostia.
- , (1997): *Juego de Espejos. Conflictos nacionales centro-periferia*. Trotta, Madrid.
- Marcuse, H., (1987): *El hombre unidimensional. Ensayo sobre la ideología de la sociedad industrial*, Ariel, Barcelona.
- Marfany, J.L., (1995): *La cultura del catalanismo. El nacionalismo català en els seus inicis*, Empúries, Barcelona.
- Nairn, T., (1979): *Los nuevos nacionalismos en Europa*, Península, Barcelona.
- Oliet, A., (1993): "Neoconservadurismo" in Vallespin; F.; García, C.; Arce, J.; Barcala, A; Viguera, M.J., *Historia de la Teoría Política*, Alianza, Madrid.
- Risco, V., (1931): "A ideologia do nacionalismo exposta en esquema" in (1981) *Obra Completa*, Akal, Madrid.
- Rokkan, S.; Urwin, D., (1983): *Economy, territory and identity*, Sage Publications, Londres.
- Rubiralta, F., (1988): *Orígens i desenvolupament del P.S.A.N. (1969-1974)*, La Magrana, Barcelona.
- , (1997): *El nuevo nacionalismo radical. Los casos gallego, catalán y vasco (1959-1973)*, Gakoa, Donostia.
- , (1998): *De Castelao a Mao. O novo nacionalismo radical galego (1959-1974). Orixes, configuración e desenvolvemento inicial da U.P.G.*, Laiovento, Santiago de Compostela.
- Seiler, D.L., (1990): "Sur les partis dans la C.E.E.", *Working Papers*, 19 zbk. Institut de Ciències Polítiques i Socials, Barcelona.
- Serrano, A., (1995): *Identidades étnicas versus identidades cívico-territoriales como "tipos ideales" de identidad nacional: discursos, actitudes y bases sociales. Una comparación entre Cataluña y el País Vasco*, Tesis doctoral, Universidad Complutense de Madrid.
- Smith, A.D., (1997): *La identidad nacional*, Trama, Madrid.
- Tiryakian, E.A., (1985): *New Nationalisms of the Developed West. Toward Explanation*, Allen & Unwin, Boston.
- Touraine, A., (1978): *Le Voix et le Regard*, Seuil, Paris.
- Waldmann, P., (1997): *Radicalismo étnico. Análisis comparado de las causas y efectos en conflictos étnicos violentos*, Akal, Madrid.
- Wiewiorka, M., (1991): *El terrorismo. La violencia política en el mundo*, Plaza & Janés, Barcelona.